

ZEUTETIK ETA EZ ZERUETATIK

Mendatako Leon Undabarrenak kontatuta

Andre gizon bik euki eben seme bat Juanikotxu izena euki ebana, eta... gero hil egin jaken. Hil jaken... eta zerura, lehenago dana izaten zan zerura eta zerura! Gero etor zan eskeko bat, eskekoa arropa zikinekin eta... ha andratxua erdi tenteltxua edo ontxua izan zan, eta gizona biboagoa. Eskekoa etor zanién gizona ez zan etxean egon, kanpotik zan, eta eskekoa etorri zanean andratxuak:

– Jesus! gizajoori! dana buztita, erropa zaharrakin eta... nundik zatoz ba?

– Zeutetik.

Esan eutsan baina zeruetatik entenditu eutsan andratxuak.

– Zeruetatik etorri zara?

Eta bestea bibo!

– Bai, zer ba?

– Neuk be hantxe daukat Juanikotxu izena daben semea, zeruetan, ezagutzen dozu?

– A bai! lagun haundiak gara, lagun haundiak gara –besteak–.

– A! zelan dabil ba? –eta...–.

– Ha be neure antzera txarto gizarajoa, erropa zaharrak eta dirua be gitxitxu eta... txarto.

– Zuk hareri orduan maletatxu bet edo egin ezkerro eroango zeunskio!

– Bai pozik be, bai pozik be...

– Prepareuko deutsut, oraintxe prepareuko deutsut.

Gero maletea ipini ebanean ba...

– Zuk e... hementxe daukat, gizonak ez dakiala ehuneko gorritxu bat be eta... zuk haixe be eroango zeunskio hareri!

– Bai pozik!

Ehunekoa be emon deutso eta... gero bestea be listo, gizona be kanpoan dala ta... laster etorriko dala eta listo arin-arin. Hor Gorriño Goitin eta hor parajeen izen zan hori, Subetzatik behera, Iberretik Berriñoko beresietarantza eta... gizona bere maleteagaz eta ehunekotxuagaz joan zan.

Gizona etorri zanean etxera:

– Hemen gure Juanikotxun lagune etorri da zeruetatik eta gizarajoa... emon deustadaz erropatu batzuk eta ba!

– Nundik joan da ba!

– Hortixik behera joan da, Subetzatik Munitibar alderantz, horrantz!

Eta zaldia euki ei eban edarra ugazabak. Gizonak, hartu zaldia eta echando sentellas joan zan, eta besteak, eskekoak, obserbatu egin eban, eta han bide eskinan parauta arantzak ataraten dagoen plantak egiten, zaldiagaz atrapo egin ei eban eta...

– Ikusi dozu hemen holako maleta bategaz... oraintsuan inor?

– Ba ... ondino bost minutu ez dira!

Eta sasia eta abarra egon zan eta...

– Hor zaldiagaz ezin neike ondo joan, eukiko dozu zaldia apur baten?

– Bai, eukiko ez dot ba!

Zaldia hartu eban eta... gizona handik gora joan zan, bitartean besteak zaldia hartu eta bista kendu ebanean ospa egin eban. Gero gizona etor zanean han zaldirik ez eskerrik ez hegoan, eta bere artean:

– Oño! berori izan dok, berori, hau da beharra –egiten ei eban–.

Eskapo eutsan, eta gizona zaldirik barik etxera bueltatu zanean, andratxuak zera esan eutsan:

– Zer... topatu dozu?

– Bai topatu dot, eta... zaldia be berari emon deustat, oinez baino hobeto ibiliko dala eta.

– Enei! ondo egin dozu, neuk be, zuk ez dakizula ehuneko gorritxu bet euki dot eta ha be emon deustat.

Orduan emon eutsan sakutik gizonari, orduko erropagaitik joan zan bakarrik bere atzetik eta ehunekotxua be berak eroan, eta zaldia be berak eroan.

Mendata gure geurea danentzat

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002